

Gure esku dago!



Ekainak 8: giza-katearekiko gure konpromisoa

Gaur komunikabideen aurrean agertzeko bildu garen ordezkariok 123 enpresatako ordezkari sindikalak gara. Zergatik kopuru hori? 123 kilometro daudelako Iruñea eta Durango artean, Gure Esku Dago ekimenak datorren ekainaren 8an milaka pertsonak osatuko duten giza-kate baten bidez lotzeko aukeratu dituen hiriak. Horrela gure babesa adierazi nahi diegu Gure Esku Dago ekimenak finkatu dituen helburuei, baita antolatuko dituen ekitaldiei ere, batik bat aipatutako ekainaren 8ko giza-kateari.

- Gure Esku Dago Euskal Herrian erabakitzeo eskubidearen aldeko dinamika bat da.
- Erabakitzeo eskubidea, eskubide demokratiko eta unibertuala da. Nazioarteko legedian jasota dago eta erabakitzeo eskubidearen alde egitea ekintza demokratiko bat da.
- Ekimenaren ezaugarriak aniztasuna, askotarikotasuna eta partehartzea dira; bere aterpean egiten ari gara antolatu diren tokian tokiko taldeen jarduerak.
- Bere helburu nagusia euskal herritarren erabakitzeo eskubidearen alde herritarrak erakarri eta aktibatzea da. Uste osoa dugu erabakitzeo eskubideari dagokionez honelako dinamiken bidez egingo dugula aurrera.

- Jendartean dagoen aldarrikapen bati aukera bat eman nahi diolako eta bere zilegitasuna bultzatu, erabakitzeo eskubidea gauzatu. Herritarrak martxan jarri nahi ditu, eta banakoak batu eta antolatuz egingo du aurrera. Horrela, erabakitzeo eskubidearen aldeko gehiengo sozial, sindikal, politiko eta instituzionalak lortzeko lana garatuko da.

- Jarrera integraztailez eta errespetuz lan egin nahi duelako, modu positiboan, erabakitzeo eskubidearen inguruan herritarrak batzeko helburuaz. Dinamikak bi oinarri ditu: aniztasuna eta dibertsitatea. Desberdinen arteko konplizitatea bilatzen du, ekintza komun eta eragingarriak egiteko agertoki egoki eta eroso batean.

- Dinamikaren hiru oinarritzko ideiekin bat gatozelako:

- Nazio bat gara
- Erabakitzeo eskubidea dugu
- Etorkizuna bertoko herritarren esku dago

Horregatik, ziur gaudelarik milaka ordezkari sindikalen eta langileren sentipena islatzen dugula, gaur hemen bildu den ordezkari-tza sinboliko honek dei egiten du ekainaren 8an Gure Esku Dago dinamikak antolatu duen ekitaldian parte hartzera.

ELA – LAB – ESK – STEE-EILAS – HIRU – EHNE